

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Saltokien % 27k produktuen prezioak jaitsi zituen 2013an

Merkatarien % 85 inguruk uste du hala moduz edo gaizki doakiola negozioa, Nafarroako saltokien egoeraren diagnostikoaren arabera

Martes, 05 de agosto de 2014

Nafarroako saltokien % 27,1ek salgaien prezioak jaitsi behar izan zituen 2013ko azken sei hilabeteetan. Bereziki Altsasua, Bera, Zangoza, Tafalla eta Azkoiengo inguruetan. Merkatarien ia % 60k prezioak mantendu zituen eta % 12k igo egin zituen.

Datu horiek atera dira Turismo eta Merkataritza Zuzendaritza Nagusiak egin duen Nafarroako saltokien egoeraren diagnostikotik. Txikizkako zerbitzuen



sektorearen egitura eta Foru Komunitateko eskualdeen egoera jakiteko egin da. Lagina Nafarroako txikizkako 700 saltokik osatu dute.

Elkarrizketetatik ateratako datuen arabera, Nafarroako saltokien ia % 50etako salgaien prezioa aldaketarik gabe mantendu da urteko azken sei hilabeteetan. Herenenak igo egin dira (% 34) eta % 15enak jaitsi.

Denboraldi horretan, merkatarien % 64k hornitzaileekin egindako erosketak murriztu ditu eta ia % 25ek bere horretan mantendu ditu. Hipermerkatuek bakarrik izan dituzte igoerak. Hornigaiaren murrizketa handiagoa izan da elikagaien/edarien/tabakoaren saltoki espezializatuetan (horien % 66,2) eta batez ere supermerkatu "ertain" eta "handietan".

Altsasua, Bera, Zangoza (% 71,7) eta Tafalla-Azkoiengo (% 70,2) eremuetan gutxitu dira erosketak gehienbat.

Enplegua eta negozioaren egoera

Enplegua egonkor mantendu da 2013ko azken sei hilabeteetan, negozioen % 86tan.

Enpleguaren jaitsiera % 9,3koa da batez beste aztertutako 700 saltokietan, nahiz eta ehunekoa % 30 den formatu tradizionalako saltokietan. Ehunekoa handiagoa Iruñeko saltokietan (% 15,7 ere). Aldiz, % 4k langile gehiago kontratatu ditu, ia hipermerkatuetan bakarrik izan zen hazkuntza.

Negozioaren egungo egoera baloratzekoan, % 57,7k dio "hala moduz" doakiola eta % 26,6k "gaizki". % 15,4k bakarrik dio "ondo" doakiola. Balorazio hori hipermerkatuen taldeak egiten du batik bat, batez ere Estellerrian (% 23,1).

Fakturazioa eta inbertsioak

Inkestan parte hartu dutenen ia hiru laurdenak (% 71,7) uste du 2013ko fakturazioa ahula izan dela, eta laurden batek normala izan dela (% 25,3). % 1,7 eskas batek bakarrik jo du handitzat fakturazioa. Eskualdeka, Altsasuan, Beran eta Zangozan hauteman da ahultasunik handiena fakturazioari dagokionez.

Gainera, merkatarien ia erdiak bere horretan mantendu ditu inbertsioak. % 35,6k murriztu egin ditu eta % 15ek igo.

Lokalaren alokairuaren eta azaleraren batez besteko prezioak

Ia % 42k baieztatu du mantendu egin direla saltokien alokairuaren prezioak 2013ko azken sei hilabeteetan. % 6,3k bakarrik dio jaitsi ziotela alokairuaren prezioa, eta % 46,2 nabarmen batek ez daki / ez du erantzun aukera markatu du.

Azalerari dagokionez, saltokiek 125,2 m² dituzte batez beste negoziarako. Espezializatuak ez diren saltokien batez besteko azalera 193,4 m² da eta elikagaiak/edariak/tabakoa saltzen den tokien kasuan 64,5 m².

Iruñerrian dauden azalerarik handienak, batez beste 232,5 m² dituzte. Iruñean (89,9 m²) eta Tafalla/Azkoienan (96,8 m²) dituzte, berriz, azalerarik txikienak.

Saltokien araudia eta elkartegintza

Hamar elkarrizketatutik seik onartu dute ez dutela Nafarroako saltokien araudiaren berri, hau da, saltokien ordutegiei, merkealdiei, likidazio-salmentei, jaiegunetan irekitzeari eta abarrei buruz. Nafarroako merkatariak "kontsumitzaileen eskubideak babesteko" araudia balioesten dute bereziki (ia % 80k) eta ia erdiak uste du ez dela egokia jaiegunetan irekitzea.

Inkestatutako merkatarien % 62 ez dago sartuta inolako elkartetan. Enpresentzako abantailarik ez ematea da horren arrazoi nagusia da (% 51).

Jarraipena etorkizunean eta bezero-ihesa

Inkestan parte hartu dutenen % 58k baieztatu du etorkizunean jarraituko duela negozioak; % 37k, aldiz, ez du uste negozioak martxan jarraitu ahal izango duenik. Martxan jarraitzeko aukera arriskuan ikusten duten gehienek saltoki tradizionalak dituzte (% 70,6).

Gainera, % 50,6k iradoki du bezeroek beste autonomia-erkidego batzuetara ihes egin dutela. Prezioa eta produktuen eskaintza handiagoa dira bezeroek ihes egiteko arrazoi nagusiak.

Finantzazioa eta arazo nagusiak

Inkestatutako biztanle gehienek onartu dute ez daukatela finantzazio-premiarik (% 77,4). Joera handiagoa da elikagaiak/edariak/tabakoa saltzen duten saltokietan (% 85) eta saltoki tradizionaletan (% 82,4). Hala ere, hipermerkatuen guztiek behar dute finantzazioa.

Nafarroako txikizkako merkataritzaren arazo nagusiei buruz galdetuta, honako hauek aipatu dituzte: azalera handiko saltokiak (% 45,6), saltokien alokairuaren prezio altuak (% 14,6) eta Administrazioaren languntza ekonomiko urriak.

Diagnostikoa

Lau kategoriatan sailkatzen ditu jarduera ekonomikoak: 1. Espezializatu gabeko saltokiak (supermerkatuak, erostetxe handiak, ultramarinoen dendak, azalera handiko saltokiak); 2. Elikagai espezializatuen saltokiak (haragiak, arraindegiak, okindegiak, fruta-dendak, edariak, tabakoa, esnekiak eta arrautzak); 3. Informazioaren teknologietan, etxeko gauzetan eta kultura eta aisiarako gauzetan

espezializatutako saltokiak (ordenagailuak eta ekipo informatikoak, burdindegia, etxerako ehunak, alfonbrak, etxetresnak elektrikoak, altzariak, liburu-dendak, kirol-dendak, jostailu-dendak); 4. Espezializatutako beste saltoki batzuen txikizkako saltokiak (jantziak, oinetakoak, larruzko gauzak, botikak, medikuentzako gauzak, erloju-dendak, oroigarrien dendak, garbiketarako dendak, armak, lora-dendak, maskota-dendak eta bigarren eskuko ondasunenak).

5 eskualde hartu dira kontuan inkesta egiteko orduan: Iruña eta Iruñerria; Lizarra, Tafalla eta Azkoien; Altsasua, Bera eta Zangoza, eta Tuteria.